

COVID 19AREN AURREKO KONTINGENTZIA-PLANA

Plan honetan bilduta daude 2020-21 ikasturtean zehar hartuko diren neurri nagusiak, Hezkuntza Departamentuaren protokoloaren gidalerroei jarraiki.

Jarraibide hauetan aldaketak egon daitezke, suerta daitezkeen osasun-baldintzen arabera. Inoizko laguntzarik handiena eskatzen dizuegu familiei, jarduera ahalik eta hoberen garatu ahal izateko.

HASIERA, 20-21 IKASTURTEA

- **Klaseen hasiera:** irailaren 11
- **Instrumentu-ordutegiaren aukeraketa:** horretarako ezarritako egunak berean segituko dute, ekainean web orrian argitaratu zirenak alegia (irailaren 9a eta 10a). **Ikasle bakoitzeko pertsona bakar bat etorri ahalko da;** eraikinaren kanpoaldean itxoin beharko du deitzen dioten arte.
- **Bilerak:** musika-lengoaieko eta hastapeneko lehenengo egunean informazio-bilera bat burutuko da, klase-orduaren bitartean; bilera honetara **ikasle bakoitzeko pertsona heldu batek** etorri beharko du. Bertan, aurtengo ikasturterako ikasgaiaren funtzionamendua azalduko da .

NEURRI OROKORRAK

PERTSONEN SARBIDEA ETA ZIRKULAZIOA

- **Sarbidea** ate nagusia izanen da, eta **irteera** aldeko atea. Ikaslegoaren elkar nahastea ahalik eta gehien ekiditeko, joan-etorriko ibilbideak eta erreiak zoluan markatuta egonen dira.
- Guraso edo laguntzaileek ezingo dute eraikinean sartu. Hauekiko arreta, ahal den neurrian telefonoz edo telematikoki egitea hobetsiko da. Ezinezkoa izanez gero, aurretiko-zita eskatuko dute.
- Ikaslegoari **puntueltasun** maximoa eskatzen diogu, eskola barruko zirkulazioa ongi antolatu ahal izateko.
- Amankomuneko lekuetan jende-pilaketak eta aldi berean pasatzea ekiditeko, ordutegiak antolatu dira, sarrera eta irteera mailakatua izateko moduan.
- Zentruaren barruan egin beharreko lekualdatzetarako, ahalik eta gehien murriztuko direnak, musukoa derrigorrez erabili beharko da.
- Igogailuaren erabilera instrumentu pisutsuak garraiatzeko eta ezintasun arrazoietarako mugatuko da.

HIGIENE-NEURRIAK

- **Musukoa derrigorrez** erabiliko du ikaslego eta irakaslego osoak.
- Oinetakoak desinfektatzeko sarbidean honetarako jarritako alfonbrak erabili. Zentruan sartzerakoan, eskuak gel hidroalkolikoaz desinfektatu beharko dira.
- Pertsonen artean 1.5 metroko distantzia ezarri ahal denean.
- Gelak aireztatuko dira ikastordu bakoitzaren ondoren.
- Ikaslegoa saiatuko da aurpegia ahalik eta gutxien ukitzen; eztula edo doministiku ukondoaren barneko aldera egiten, edota musuzapi batean, berau zakarrontzira bota ahal izateko.
- Ikaslegoak, zentzura behar-beharrezko materiala soilik ekarriko du. Ez da onartuko zentruan sartzea patinik, patineterik, etab.
- Ahal den neurrian saiatu **komunak** ez erabiltzen. Ikaslegoak edota irakaslegoak desinfektatu beharko du erabili orduko, horretarako prestatu den produktua erabiliz. Hastapeneko ikaslegoa irakaslearekin joanen da komunera, eta irakasle hau izanen da desinfektatzeaz arduratuko dena. Beheko solairuko komunak, bakarrik ikaslegoak erabili ahalko ditu. Bigarren solairuko komunak, bakarrik irakaslegoak erabili ahalko ditu. Kanpotik datorren inork ezingo ditu komunak erabili.

IKASTORDUEN GARAPENA

ikastordu bakoitzak 5 minutu gutxiago iraungo du, ikaslegoaren arteko topaketa ekiditeko eta gunea edota erabilitako materiala/instrumentuak desinfektatzeko

Irakaslegoa arduratuko da atea eta leihoak irekitzeaz, argiak piztu eta itzaltzeaz eta beste edozein gailu erabiltzeaz.

KOLEKTIBOAK

HASTAPEN MUSIKALA

- **Derrigorrez musukoa erabili.**
- **Hastapen musikaleko** behar duten taldeentzat, ratioa dela eta, eskolako bi gunerik zabalenak prestatu dira, 1.5 metroko segurtasun-distantzia mantendu ahal izateko. Talde guztiak klasera etorriko dira ezarritako **bi saioetan**.
- Ikasleek gelan utziko dituzte karpetak, eta saio bakoitza bukatutakoan desinfektatuko dira.
- Debehatuta dago eskolara jostailuak edo antzeko objektuak ekartzea.

MUSIKA-LENGOAIA

- Ikasgai honetan ikaskuntza presentziala hobetsiko da, nahiz eta beharrezkoa izanen den zenbait online saioekin konbinatzea. Horregatik, **oso garrantzitsua** da lehenengo saioko informazio-bilerara etortzea, prozedura zuei azaldu ahal izateko.

AHOTS TALDEA

- Ahots taldearen ikastorduak eskolatik kanpoko gune batean izanen dira, oraindik zehazteke dagoena. Laster jakinaraziko zaizue kokapena. Ikastordu hauek 50 minutuko iraupena izanen dute, ondoren musika eskolara itzuli behar duen ikaslegoari lekualdatzea errazteko.

AGRUPAZIOAK

- Agrupazio bakoitzak entseguetarako egutegi bat izanen du. Egutegi honetan, ikasle bakoitzak dagokion agrupaziora zein egunean joan behar duen zehaztuko da. Entseguen lehenengo egunean **informazio-bilera** burutuko da, bertara ikasle bakoitzeko pertsona heldu bat joanen delarik
- Ikasle bakoitzak entsegura bere atrila eta partitura propioak ekarriko ditu.
- Ikasle bakoitzak bakarrik berea den materiala erabiliko du

BANAKAKOAK

- Instrumentuen ikastorduak **era presentzialean** emanen dira, segurtasun distantzia beti mantenduz.
- Musukoa erabiltzea derrigorrezkoa izanen da, praktika instrumentalarekin bateraezina den espezialitateetan izan ezik. Kasu horretarako, neurri hauek ezarri dira:
 - Segurtasun distantzia
 - Irakaslearengana instrumentua zuzentzea ekidin
 - Pantaila/musukoa irakaslegoarentzat
- Ikaslegoak eskolarena den material instrumentala erabiltzen duen ikastorduetan, materiala erabili aurretik ikasleak gel hidroalkoholikoaz garbitu beharko du bere burua.

EGINBEHARRAK BALIZKO COVID-19 KASUEN AURREAN

- Ez dira bertaratuko zentrura ikasleak, irakasleak eta beste profesionalak baldin eta COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak badituzte; ezta COVID-19 diagnostikoagatik isolamenduan daudenak; ezta etxeko berrogeialdian daudenak harreman estua izan dutelako COVID-19ko sintomekin dagoen norbaitekin, edo diagnostikatuta dagoenarekin.
- Familiek ondorengo kasuetan harremanetan jarriko dira eskolarekin:
 - Ikasleren bat konfinatu badute kontaktu positibo bat dela-eta.
 - Agerian baditu COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak.
 - Positibo baieztatua bada.
- Konfinamendua **behar bezala justifikatuta** badago, ikasleak dagozkion ikastorduak online jasoko ditu.
- Irakasle baten konfinamendua gertatuz gero, kontaktu positibo bat dela-eta (ez baja medikoagatik), konfinamendu bitartean bere ikasgaia irakatsiko du (agrupazioak izan ezik) online eran.

ZENTRUAREKIKO HARREMANA

Zentruarekin harremana edozein kudeaketa-egintzarako, era telematikoan egingen da ondorengo bideen bitartez:

- Telefonoz: 948232371
- Posta elektronikoz: hilarioneslava@hilarioneslava.net

Irakaslegoarekin harremanetan jarri behar izanez gero, eskolaren web gunera jo (www.hilarioneslava.com), sakatu PROFESORADO atalean, bertan bait daude irakasle guztien posta elektronikoen helbideak.